

## IRABAZI ITURRIAK

Atal honetan, gure enpresak edukiko dituen irabazi iturriak aipatuko dugu. Hauen artean bi bereiziko ditugu: inbertsioetarako diru iturriak eta hilabetero ditugun diru iturriak. Inbertsioetarako diru iturrien barne, kostuen egitura atalean aipatu ditugun hasierako inbertsioak ordaindu ahal izateko erabiliko dugun diru kopurua eta honen jatorria aipatuko ditugu. Bestalde, diru iturrien atalean, gure produktuaren salmentarekin irabazten dugun dirua adieraziko dugu, hilabete bateko salmenten aurreikuspen bat eginez.

Hasteko, hasierako inbertsioetarako diru iturriak aipatuko ditugu, eta esan bezala, proiektuari hasiera emateko eskuratu behar dugun dirua aipatuko dugu. Diru hori eskuratzeko bi modu edukiko ditugu, taldekide bakoitzak jarritako dirua eta bankuari eskatutako mailegua.

INBERTSIOETARAKO DIRU ITURRIAK	
Jatorria	Dirua
Guk jarritako dirua	2.000€ x 4 = 8000€
Maileguaren dirua	10.000€
<b>GUZTIRA</b>	<b>18.000€</b>

Jarraian, gure produktuarekin edukiko genituen diru sarrerak aipatuko ditugu, hilabete bateko aurreikuspena eginez. Horretarako, gure produktuaren prezioa(109,99€) eta hilabetero ekoiztu eta saldu nahi dugun gailu kopurua(150) kontuan izanik, bata bestearekin biderkatu ditugu. Gainera, gure diru sarrera bakarra produktuaren salmenta denez, diru iturrien %100a bertatik datorrela jakiteko ez dugu kalkuluak egiteko beharrik izan.

DIRU ITURRIAK (Hilabete 1)		
Diru iturria	Dirua kopurua	Portzentaia
Produktuaren salmenta	150 x 109,99€ = 16.498,5€	%100
<b>GUZTIRA</b>	<b>16.498,5€</b>	